**EUDEL**

**6710**

ERABAKIA, Euskadiko toki-erakundeetako langileen 2008-2010rako lan-baldintzak arautzen dituena.

Udalhitz. Euskadiko tokiko erakundeen lan harremanetarako marko sektoriala eratzeko protokoloa.

Bilduta: alde batetik Eudel, Euskal Autonomia Erkidegoko udalen ordezkari gisa, eta bestetik, ELA, CC-.OO. eta UGT, udal langileen ordezkari gisa.

Kontuan hartu da Euska0l Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioan akordio sektorialek ibilbide luzea izan dutela Eudelen (tokiko erakundeen ordezkari gisa) eta sindikaturik nagusienen artean. Akordio horiek Euskadiko Toki eta Foru Administrazioko Langileen Enplegu Baldintzen Akordio Arautzaileekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta, ondoren, 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin izan zuten jarraipena. Azken horiek 2007ko abenduaren 31ra arte egon dira indarrean, eta, beraiei esker, lan harremanen marko aurreratua egituratu ahal izan da, Euskadiko lurralde erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrentzako zerbitzuaren espiritua garatuz.

Kontuan hartu da esperientzia hori sendotu eta sakondu egin daitekeela, Euskadiko tokiko erakundeen lan harremanen marko sektorial bateratua ofizialduz eta erakunde horiek elkartuz, pilatutako esperientziaren bitartez aurrera egin ahal izateko erakundeen eraginkortasunean eta lan ingurunearen kalitatean. Hori horrela,

AKORDIO hauek lortu dituzte:

***Lehenengoa***.– Protokolo honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan protokolo horrekin bat egiten duten Tokiko Erakundeetako lan harremanen negoziaziorako marko sektorial bateratua eratzea, Eudel Euskadiko Udalen Elkartearen (tokiko erakundeen ordezkari gisa) eta ELA, CC.OO. eta UGT sindikatuen (udal langileen -funtzionarioak zein lan-kontratudunak- ordezkari gisa) artean.

***Bigarrena***.– Marko honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko langile funtzionarioei zuzendutako Akordio Sektoriala eta lan-kontratudunei zuzendutako Hitzarmen Kolektibo Sektoriala formalizatzeko negoziazio prozesua hastea, 2006ko martxoan sinatutako Udalhitz Akordioen marko sektoriala eguneratu, sendotu eta egokitzeko asmoz.

***Hirugarrena***.– Adieraztea aldeek borondatea dutela akordio horiek sektorean ahalik eta aplikazio handiena izan dezaten, eta, horretarako, Euskal Autonomia

**EUDEL**

**6710**

ACUERDO regulador de las condiciones de trabajo del personal de las instituciones locales vascas Udalhitz 2008-2010.

Udalhitz. Protocolo constituyente del marco sectorial de relaciones laborales para las instituciones locales de Euskadi.

Reunidos: de una parte Eudel, en representación de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca, y de la otra ELA, CC.OO. y UGT, en representación de los trabajadores municipales.

Considerando la larga trayectoria de acuerdos sectoriales en la Administración Local de la Comunidad Autónoma Vasca entre Eudel, en representación de las entidades locales, y los sindicatos más representativos, que se iniciaron en los Acuerdos Reguladores de las Condiciones de Empleo del Personal de la Administración Local y Foral de Euskadi (ARCEPAFE), y prosiguieron en los Acuerdos Udalhitz, de marzo de 2006, que se han mantenido vigentes hasta el 31 de diciembre de 2007, y que han permitido ir estructurando un marco de relaciones laborales avanzado y un gran desarrollo de la eficacia, calidad y espíritu de servicio a la ciudadanía de las Instituciones territoriales vascas.

Considerando que ahora es posible consolidar y profundizar esta experiencia mediante la oficialización de un marco negociador sectorial unitario de relaciones laborales en las instituciones locales vascas, que se adhieran, que a partir de la experiencia acumulada haga posible afrontar un nuevo avance en la eficacia de las instituciones y la calidad de su entorno laboral, han alcanzado los siguientes.

ACUERDOS:

***Primero***.– Constituir mediante este Protocolo un marco sectorial unitario de negociación de relaciones laborales en las Instituciones Locales que se adhieran de la Comunidad Autónoma Vasca, entre Eudel, la Asociación de Municipios Vascos, en representación de las entidades locales, y los sindicatos ELA, CC.OO. y UGT, en representación de los trabajadores municipales, tanto funcionarios como personal laboral.

***Segundo***.– Iniciar el proceso negociador para formalizar en este marco un Acuerdo Sectorial para el personal funcionario de las Instituciones Locales de la Comunidad Autónoma Vasca, y un Convenio Colectivo Sectorial para el personal laboral, que constituyan la actualización, consolidación y adaptación al marco sectorial de los Acuerdos Udalhitz firmados en marzo de 2006.

***Tercero***.– Declarar la voluntad de las partes de que dichos acuerdos tengan la máxima aplicación en el sector, y para ello invitan a los Ayuntamientos y demás

Erkidegoko udalak eta gainontzeko toki erakundeak gonbidatzea akordioekin bat egin dezaten; hori horrela, sinatzaileek erabaki dute, integrazio hori ahalik eta gehien ahalbidetzeko asmoz, ordezkaritza sindikalekin indarreko akordioak dituzten erakundeetan, akordio horiek indarrean jarraituko dutela, oraingo Akordioekin bat egiteko aukerari kalte egin gabe, baldin eta aurreko akordioetako sinatzaileek hala erabakitzen badute.

***Laugarrena***.– Protokolo honek barne hartzen dituen tokiko erakunde guztiei eta ordezkaritza sindikalei adieraztea ez dezatela Mahai honen xede diren gaiei buruzko negoziazio prozesurik hasi, ondorengo kudeaketa lana zailduko duten negoziazio bikoitzak saihesteko.

Erakunde bakoitzeko mahaietan negozia daitezkeen gaiak honakoak izango dira, gutxienez: izaera orokorrekoak ez diren soldaten eguneraketak, aparteko orduak, zerbitzu publikoen mantentzea eta hobekuntza, lana sortzeko neurriak eta laneko erasoen eta generoko indarkeriaren aurkako neurriak.

***Bosgarrena***.– Sinatzaileek negoziatzeko konpromisoa hartu dutela jakinaraztea. Negoziazio hori Protokolo honen bitartez eratutako marko sektorialean egingo da, fede onez, elkarrizketa eta lankidetza zintzoko giroan, eta, desadostasunak konpontze aldera, negoziazio kolektiboaren markoa agortuz.

***Seigarrena***.– 1.– Bitartekotza, interpretazio eta adiskidetze eta bitariko batzordea sortzea jarraipena eta ebaluazioa egiteko, abian jartzean laguntza eskaintzeko eta Erakunde zehatzetan bi aldeek hala eskatzen dutenean, arazoak eta ezadostasunak sortzen direnean, bitartekotza, interpretazioa eta adiskidetze lana egiteko.

2.– Protokolo-Marko hau sinatu duten sindikatuetako bi ordezkarik eta ordezkari sindikalak besteko Eudeleko hainbat kidek osatuko dute batzordea; ordezkatutako erakunde bakoitzak boto bana emango du; sindikatu bakoitzak emandako botoaren balioa sektorean daukan ordezkaritzaren araberakoa izango da eta Eudelen botoa ordezkari sindikalen botoen balioaren adinakoa izango da; erakunderen bateko kideek joaten ez badira, horrek ez du botoen haztapenean eragingo; alde bakoitzak kanpoko bi aholkulari izendatu ahal izango dituzte gehienez, baina ez dute boto eskubiderik izango.

3.– Bitartekotza, Interpretazio eta Adiskidetze eta Bitariko Batzordearen bilkurak baliagarriak izateko, gutxienez Eudeleko 2 ordezkari joan beharko dira eta joaten diren sindikatuen sektorean duten ordezkaritza gutxienez % 51koa izan beharko da.

4.– Bitartekotza, Interpretazio eta Adiskidetze eta Bitariko Batzordean akordioak lotzeko, alde sindikalean gehiengo sinplea nahikoa izango da, eta erakundearen aldean aldeko botoa edo abstentzioa beharko da.

entidades locales de la Comunidad Autónoma Vasca a adherirse a los mismos; en este sentido, las parte signatarias acuerdan que, para facilitar al máximo dicha integración, en aquellas instituciones en las que existan acuerdos vigentes con la representación sindical éstos seguirán en vigor, sin perjuicio de la posibilidad de que se adhieran a los presentes Acuerdos por decisión de las partes signatarias de aquellos.

***Cuarto***.– Invitar a todas las instituciones locales concernidas por este Protocolo y a las representaciones sindicales en las mismas a abstenerse de iniciar procesos de negociación sobre las materias objeto de esta Mesa y así evitar duplicidades negociadoras de compleja gestión posterior.

Los temas reservados susceptibles de negociación en las mesas de cada Institución, serán al menos las siguientes: las actualizaciones retributivas de carácter no general, las horas extraordinarias, el mantenimiento y mejora de los servicios públicos, las medidas de generación de empleo, las medidas contra el acoso laboral y violencia de género.

***Quinto***.– Hacer público el compromiso de las partes signatarias de negociar, en el marco sectorial constituido mediante este Protocolo, de buena fe, en un clima de diálogo y de cooperación sincera, agotando el marco de la negociación colectiva para solventar las divergencias.

***Sexto***.– 1.– Acordar la creación de una Comisión Paritaria y de Mediación, Interpretación y Conciliación, con el fin de llevar a cabo el seguimiento, evaluación, apoyo a la puesta en práctica y, a petición de las partes en Instituciones concretas, mediación, interpretación y conciliación sobre los problemas y desavenencias que puedan surgir.

2.– Formarán parte de la citada comisión dos representantes de cada uno de los sindicatos firmantes del presente Protocolo - Marco y un número de representantes de Eudel igual al total de representantes sindicales; cada una de las entidades representadas ejercitará en las votaciones un único voto; el valor del voto de cada sindicato será equivalente al porcentaje de su representatividad en el sector, y el voto de Eudel será equivalente a la suma de los votos sindicales; si se produjera alguna inasistencia de representantes de alguna entidad esta no afectará a la ponderación del voto existente; ambas partes podrán nombrar un máximo de dos asesores externos sin derecho a voto.

3.– Para que las sesiones de la Comisión Paritaria y de Mediación, interpretación y Conciliación puedan celebrarse validamente será precisa la asistencia de, al menos, 2 representantes de Eudel, y que estén presentes organizaciones sindicales que representen como mínimo el 51% de la representación del sector.

4.– Los acuerdos de la Comisión Paritaria y de Mediación, Interpretación y Conciliación se adoptarán por mayoría simple en la parte sindical y por voto favorable o abstención en la parte institucional.

5.– Protokolo honetan jasotako arauak garatze aldera, oraingo funtzionamenduko oinarrizko erregelamenduari eutsiko zaio.

***Zazpigarrena***.– Akordio honen indarraldian zehar honen funtsezko edukiren bati eragiten dioten lege-aldaketak indarrean sartuko balira eta Interpretazio Batzordeko aldeen artean horiek interpretatzeko desadostasunak baleude, adostasunik gabeko interpretazioaren arazoa dagokion Eskubidezko Arbitrajearen irizpenaren arabera ebazteko konpromisoa hartzen dute aldeek. Arbitraje hori, gatazkak ebazteko sistemak erabakitakoaren arabera arautuko da. Arbitroak emandako ebazpena loteslea izango da alde bientzat.

Arbitrajean jarraitu beharreko prozedura formalaren eredu bat idazteko, batzorde tekniko berezia sortuko da Bitariko Bitartekaritza, Interpretazio eta Adiskidetze Batzordearen baitan, eta batzorde tekniko hori eratzen denetik, gehienez ere 6 hilabeteko epean aurkeztu beharko dio bere lana organo horri.

***Zortzigarrena***.– Akordio hauen funtzio eremuan Euskal Autonomia Erkidegoko Tokiko Administrazio Publikoa osatzen duten lurralde entitateak eta erakundeak sartzen dira. Lehenengoen artean, udalerriak daude, eta bigarrenen artean, lurralde entitateetako zerbitzuen kontzertatu gabeko kudeaketa egiteko organismoak. Organismo horiek eredu hauetan jarduten dute: administrazio bereziko organoko kudeaketa, organo autonomoa, merkataritza-sozietatea eta enpresa entitate publikoa.

Era berean, metropoli-entitateak, eskualde-entitateak, taldeak, mankomunitateak eta partzuergoak sartzen dira, pertsonala ordezkatzeko organoen parte-hartzari eta eskumena duten organoek lotu ditzaketen akordioetan eragin barik, bakoitzaren izaera juridikoa zainduz.

XEDAPEN GEHIGARRIA.

Bitariko Bitartekaritza, Interpretazio eta Adiskidetze Batzordearen baitan Akordioko 102.4. artikuluaren edukia eztabaidatu eta aztertzeko konpromisoa hartzen dute aldeek.

Bilbao, 2008ko apirilaren 28a.

Eudelen ordezkariak

Sindikatuetako ordezkariak
ELA
CC.OO.
UGT

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen da aipaturiko Hitzarmena**

5.– Se mantendrá el actual reglamento básico de funcionamiento, en desarrollo de las normas contenidas en este Protocolo.

***Séptimo***.– Para el supuesto de que en el curso de vigencia de este Acuerdo entraran en vigor modificaciones legislativas que afectaran a alguno de los contenidos esenciales del Acuerdo sobre el que hubiera discrepancias interpretativas entre las partes irresolubles en el seno de la Comisión de Interpretación, las partes se comprometen a dirimir la cuestión objeto de discrepancia interpretativa al dictamen que resulte del correspondiente Arbitraje de Derecho, cuya regulación será la estipulada para este sistema de resolución de conflictos. La resolución que se dicte por el árbitro será vinculante para las partes.

Con el objeto de redactar un modelo del procedimiento formal a seguir en el Arbitraje, se creará una comisión técnica específica en el seno de Comisión Paritaria y de Mediación, Interpretación y Conciliación, que deberá presentar su trabajo a dicho órgano en un plazo no superior a 6 meses desde su constitución.

***Octavo***.– En el ámbito funcional de estos Acuerdos se incluye expresamente a la totalidad de los entes territoriales e institucionales que integran la Administración Pública Local de la Comunidad Autónoma del País Vasco, comprendiendo entre los primeros a los municipios y entre los segundos a organismos de gestión desconcentrada por servicios de tales entes territoriales, en las modalidades de gestión con órgano especial de administración, organismo autónomo, sociedad mercantil y ente público empresarial.

Se incluyen, asimismo, las entidades metropolitanas, entidades comarcales, agrupaciones, mancomunidades y consorcios, sin perjuicio de la participación de los órganos de representación del personal y adopción de los acuerdos que procedan por los órganos competentes, en atención a la personalidad jurídica de cada uno de ellos.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Las partes se comprometen a debatir y estudiar en el seno de la Comisión Paritaria y de mediación, interpretación y conciliación, el contenido del artículo 102.4 del Acuerdo.

En Bilbao, a 28 de abril de 2008.

Por Representación de Eudel

Por Representación Sindical
ELA-STV
CC.OO.
UGT

**En suplemento aparte se publica el citado Acuerdo**